

Kazetaritza, txanpon baten truke



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Venezia, 1563. Errepublikaren eta otomandarren arteko laugarren gerra ofizialki zazpi urte geroago piztu arren, turkiarren eta veneziarren arteko harremanak gatazkatsuak ziren ordurako, eta errepublikako gobernuak *Notizie Scritte* (albiste idatziak) izeneko berripaperak banatzen hasi zen herritarren artean, sultanarekin une horretan zegoen krisi diplomatikoaren berri izan zezaten.

Berripaperok eskuz idatzitako kopiak izaten ziren; inprenta dagoeneko hedatua egon arren, aurrerago hasiko ziren albisteak makinetan kopiatzen. 8-16 orrialde izan ohi zituzten eta asteroko maiztasunez kaleratzen zituen Veneziako gobernuak. Hasieran, esan bezala, gatazken, guduen eta tropen mugimenduen berri ematen zuten bereziki, baina irakurle nagusiak merkataria izaki, berehala hasi ziren albiste ekonomikoak ematen: salgaien prezioak, azoken nondik norakoak... eta salerosketa eskaintza batzuk ere agertu ziren tarteka, alegia, publizitate modukoak. Veneziarren ereduaz azkar zabaldu zen. Alemanian, esaterako, albistearen eskuizkribuak banatzen hasi zen Fugger bankua, eta Erresuma Batuan gorteko berriak ere modu berean banatzen hasi ziren. Agintari politiko eta ekonomikoek garbi ikusi zuten informazioa beren interesen alde erabiltzea komeni zitzaiela.

Ez ziren lehenak izan. Julio Zesarrek



XVI. MENDEKO VENEZIAKO ERREPUBLIKAKO 2 SOLDIKO TXANPON HONEK JARRI ZION IZENA KAZETARITZARI.

K.a. 69an agindu zuen Senatuaren jardunaren albisteak (*acta diurna, commentaria Senatus*) publiko egitea eta *acta diurna* horiek jotzen dira historiako lehen egunkaritzat. Baina erromatarren egunkari horiek ez ziren paperean idazten, metalean edo harrian baizik –gero eskribauk papiroan kopiak egin eta banatzen zituzten arren-. Eta gainera erromatarrek ez zuten informazio hori jasotzeagatik ordaindu behar. Veneziarrek, ordea, 2 soldi ordaindu behar zituzten *Notizie Scritte* eskuratzeko eta, beraz, Venezian bihurtu ziren albisteak salgai.

Lehen aldizkari horiek ez zuten bide gehiegi ematen kazetaritza jardura ga-

ratzeko; inprimatzeko makinak emango zuen aukera handiagoa albisteak hobeto landu eta idazteko, eskuz kopiatzeak prozesuaren zatirik handiena hartzeari utzi ziolako.

Beraz, veneziar berripaperak ez zion kazetaritzari izaera eman; izena bai, ordea. Veneziako Errepublikan garai hartan erabiltzen zen 2 soldiko txanponari “gaxeta” esaten zioten Venetoko dialektoan eta, horixe zenez astekariaren prezioa, berripaperari hala esaten hasi zitzaizkion hirian. Gerora Italia osora zabaldu zen izena, “gazzetta” bihurtuta. Eta aurrerago, besteak beste, gurerak, “kazeta” moduan. ●

CLASSICAL NUMISMATIC GROUP INC.]

Esnearen abantaila ebolutiboak

Tollense ibaiaren bailaran (egungo Alemania) gudu bat izan zen duela 3.200 urte inguru, eta 1990eko hamarkadatik hona, 100dik gora gorpuren arrastoak topatu dituzte. Hildakoen gorpuzkinak aztertuta, ikusi dute zortzi lagunek laktosari tolerantzia ziotela eta gainerako guztiek, aldiz, ez. Gaur egun inguru horretako biztanleen %90ek jarraitu dezakete esnea hartzen

hautzaroa pasata ere. 120 belaunalditan halako aldea izatea izugarria da genetisten arabera. Friburgeko unibertsitateko Daniel Wegmannen ustez, “alde hori azaltzeko modu bakarra hautespen natural oso azkar eta eraginkorra da. Hau da, indibiduo tolerantetik askoz haur gehiago izan zituzten edota haur horiek bizirauteko askoz aukera handiagoak zituzten”. ●



STEFAN SAUER / TOLLENS VALLEY PROJECT